

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak, gainerako autonomia erkidegoekin batera, sarreren birsalmenta arautzen duen legea abian jartzeko txostena onartu du

*Ana Herrera kontseilariak Kulturaren Biltzar Sektorialaren bilkuran parte hartu du, eta kultur ikuskizunetarako sarreren birsalmentan esku hartzea erabaki dute*

Asteartea, 2018.eko urriak 30

Kulturaren Biltzar Sektorialak gaur onartu du kultur ikuskizunetarako sarreren birsalmenta arautzen duen estatu-lege bat abian jartzeko txostena. Horrela erabaki dute Jose Guirao Kultura ministroak zuzendutako osoko bilkuran, gaur eguerdian, Madrilén; bertan parte hartu du Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak, beste komunitate autonomoetako homologoekin batera.



Autonomia Erkidegoetako kulturako arduradunak eta Guirao Ministroa (erdian), bilkura ondoren.

Erabakia Kultur eta Kirol Ministerioak egindako kontsulta publikoaren emaitzak kontuan hartuta hartu dute; kontsulta publikoa gaur aurkeztu dute osoko bilkuran. Kontsultan agerian geratu dira birsalmentako funtsezko arazoak; hala nola, “kontratuaren aurreko informazio eskasa”, “sarreren disponibilitate mugatua eta sarreren prezio altua”, “iruzurrak” eta “pertsonek segurtasun-arazoak”. Era berean, gaur Kulturaren Biltzar Sektorialean aurkeztutako txostenean esaten da gaur egun birsalmentarako aplikatu daitezkeen araudia “eskasa, zatikatua eta nahasia” dela; beraz, arlo hori arautzea beharrezkoa da, “kaltetuak diren interes publikoak babesteko”. Ildo horretan, “kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa, kultura eskuratzeko aukera eta herritarren segurtasuna” aipatu dira, eta, ondorioz, komenigarria dela “estatu-lege bat ematea, garatzeko eta gauzatzeko lege autonomikoak izatea alde batera utzi gabe”.

Sarreren birsalmenta izan da Kulturaren Biltzar Sektorialaren bilkuraren gai nagusia; bilkura Guirao ministroak zuzendu du, eta zuzendaritza-talde berria ere aurkeztu dute.

Bilkuran, halaber, ezagutu dituzte Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako Lan Mahai iraunkorrari buruzko txostena, Espainiako bideojokoen sektoreari buruzkoa, eta Liburuaren eta Irakurketaren Sustapenaren Zuzendaritza Nagusiari buruzko txostena.

Era berean, Europar Batasuneko Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kiroleko Ministroen Kontseiluaren bilerari buruzko informazioa eman dute, eta, ildo horretan, Merkatu Bakar Digitaleko Egile-eskubideei buruzko zuzentaraua onartzeko egindako kudeaketan berri eman du ministroak.

Kulturaren Biltzar Sektorialaren osoko bilkurak nazioarteko azoka nagusietan Espainiak izango duen parte-hartzearen prestaketa-lanak ezagutu ditu; esate baterako, Pragako 2019ko Lau Urtez Behingo Azokan eta Franfort-eko Liburuaren 2021eko Azokan (azken horretan, Espainia Ohorezko Herrialde Gonbidatua izango da).